



Zuhaitz mota
ezagun batzuk

5



Azalpena eta oharrak

Oihan orrazdunik baizik ez delarik ageri, zenbait lekutan gertatzen den bezala, franko damugarri iduri bide zaigu. Euskal Herriko iparralde honetan, oihanak ez du zuhaitz mota bakar baten itxura hartu, zorionez. Nahiz eta haritzaren presentzia handia izan, bereziki zelaietan, eta pagoarena, berriz, leku garaietan, beste zuhaitz mota edo espezie anitz bada gure eskualdean. Bioaniztasun hori oihangintzaren eta ekonomiaren abantailetan da eta bide nabar gure bazterrak laketagoak baizik ez ditu egiten.

Beharrezkoa da Euskal Herriko haurrek ezagut ditzaten beren inguruko zuhaitz mota zenbait, etxe inguruetatik hasiz, emeki-emeki oihanarteko beste mota batzuei ohartaraziz.

Horretara hel gaitezke urrats esperimentala baliatuz : behatuz lehenik, hipotesiak sortuz, probatuz eta azkenik ondorioztatuz. Urraspide hau lehen mailako ikaspidean sartzen da bete-betean.

Nondik has

- Haurrek larrazkenean zuhaitz hosto batzuk bildu dituzte.
- Sasoin horretako kolore ederrei ohartu dira.
- Negu hasieran herriko langileek zuhaitz zenbait landatu dituzte ikasgelari hurbil...
- Horiek oro jakin-mina sor dezakete haurren baitan.

Haurrengandik entzun daitezkeen galdeak

- Etxeko baratzeko zuhaitzen izenak ez dakizkit !
- Haritzak, pagoak,... non aurki daitezke Euskal Herrian ?
- Ene lagunak Harizmendi du deitura ?!

Jarduera batzuk

Zuhaitz-hosto bilduma antolatu.

Ikasgelara itzuli eta, hostoen sailkapenaren egiteko irizpideak finkatu.

Hostoen arabera zuhaitzen sailkapen-taula antolatu.

Zuhaitza izenburuko kapituluaren lantzen den sailkapen-taula beste eredu batzuekin erka eta eredu batekin adostu.

Sailkapen-taula baliatuz, eskualdeko zuhaitz ezagunenak identifikatu.

Euskal deituren ikerketa egin.

Ikasiaren finkatzeko jarduerak

Zuhaitzen identifikazio fitxa baliatuko da.

Taldean idatziko da bilketatik sortu ohar eta erakaspenen bilduma.

Taldean edo bakarka, ikasleek ikasi dutena elkarri jakinaraziko diete.

Ikasleek beren fitxak bakarka beteko dituzte.



5/1

5/2

5/3

5/4

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Galdeak azaldu.

Hipotesiak azaldu.

Landu gaia azaltzen ikasi.

Ezaugarri fitxak eraiki elkarrekin finkatu irizpideen arabera.


Bildua izan den informazio multzoa hasierako galdeari lotu.

Dokumentazio iturriak

Euskal deituren izendegia, Eusko jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzak Saila eta Euskaltzaindia. 1998

Euskal deituren kronikak, Marikita Tambourin, Gatuzain eta Herria argitaletxeak

Haritz kanduduna eta ametza



© Eusko Jaurlaritza, Francisco Garin

Haritz kanduduna

Haritz kandudunaren kukula irregularra da ; koroa baten itxura dauka. Adar gotorrez osatu koroari *abardura* ere erraten zaio. Zuhaitzaren azala non-nahitik arrailtzen da adinarekin eta arraildura edo ildaxka horietarik zenbait askitto barna ditu.

Haritz kandudunaren hostoaren girtaina laburra da. Girtain horren bi aldeak lobuluz osatuak dira aurikula batzuen gisa.

Haritz horien begiak aldaxka muturrean bilduak dira.

Haritz kandudunen (artean salbu) ezkurak aldaxkari (zurtoinari) lotuak dira girtain luze baten bidez.

Haritz kandudunei Euskal Herriko klima ozeaniko epela gustatzen zaie. Argi gose dira. Uholdeak aise jasaten dituzte. Ordoki edo zelaietan aurkitzen dira komunzki.

Ametza



Ametza haritz kanduduna baino tipiagoa da. Enborra laburra eta bihurkatua du.

Ametzaren hostoak azkarki lobatuak dira eta hosto handiak lumatxa trinko batek estaltzen ditu.

Ametzaren begia xorrotxak dira, grisak eta iledunak. Multzoka aurkitzen dira, aldian lauzpabost begi elkarri kontre.

Ezkurak oboideak eta tipiak dira. Ezkurra dakarren gopoila (*kupula* eta *karloa* ere erraten da) ileduna da.

Ametzari *Pirinioetako haritza* ere deritzo. Airearen hezetasuna eta beroa gustatzen zaizkio. Horregatik Akitania guzian eta bereziki Euskal Herrian aurkitzen da (ikus, adibidez, Hazparneko larreetan). Euskal Herrian ametza xardakatzen dugu : zenbait adar mozten zaizkio ametzari, saskien egiteko edo abere ihaurgai gisa baliatzeko. Haatik sugaitako guti baliatzen da.



© Eusko Jaurlaritza, Francisco Garin



© Eusko Jaurilaritza,
Francisco Garin



Pagoa

Leku argituan delarik, enborra laburra du eta adaburu handia. Hostailaren azpian landare guti bizi daiteke.

Pagoaren azala leuna da, fina eta kolorez hauskara eta horrela egoten da zuhaitzaren bizi guzian. Azala ahula duelako, zauriak ez zaizkio aise sendatzen.

Linbo bazterretan, pagoaren hostoak ile piru fin batzuk dauzka eta zainen kantoietan ile putzuka. Horretatik da xarmaren hostotik desberdintzen.

Hostoak eroriak dituelarik, adarren begietatik ezagun daiteke pagoa : beltzak eta puntadunak ditu.

Kusku arantzadunetan binaka aurkitzen dira pagatxak. Pagatxak amanda jela itxurakoak dira. Jangarriak dira eta animalia franko horietan gogotik alhatzen da.

Pagoak aire hezea behar du, beraz klima menditarra eta ozeanikoa egoki zaizkio. Neguko izotzaren beldurrik ez du baina udaberriko horma


berantiarrek makur egiten diote. Ez itzalak ez eta ere beste zuhaitzen estalkiak ez diote kalte handirik egiten. Pago-izei pareak oihan ederrez beztitzen ditu Pirinioetako mendi mazalak.

Xarma


Xarmaren azala dena zimurdura bilakatzen da zahartu arau. Zimurdura horiek *ildaska* deitzen dira. Enborra ez zaio loditzen; ez da zahartzen baina haren egurra izugarri gogorra da.

Pagoarenak bezala, xarmaren hostoak kiribilka emanak dira adaxketan. Aise ezagut daitezke zeren oxkatuak baitira eta zainen artean mamitsuak, gizenak.

Xarmaren adaxkak bihurtikatuak dira. Ertzetan eta puntan, ile piru laburreko begi beltzarana daukate adaxkek, norabidez aldatzen diren guzietan. *Akenio* izeneko fruitu idorra du xarmak. Akenioak multzoka sortzen dira golko bat osatuz. Hiru lobuluko hosto bati itsatsiak izaten dira. Hostoari gisa horretan loturik, haizeak ufatz bezala airean dabil. Hotzaren beldur ez da xarma. Udaberriko hormek ere ez dute lotsatzen. Haatik, ez da mendiko zuhaitza : ordoki eta mendixketan laketago da. Frantziako ipar-ekialdean ugari da baina Euskal Herrian ere, han-hemenka aurki daiteke eta bereziki Bidasoako haranean.



© Eusko Jaurilaritza, Francisco Garin



© Eusko Jaurlaritza, Francisco Garin

Gaztainondoa

Gaztainondoari, zahartuz bezala, enborra zabaltzen zaio eta adarrak azkartzen.

Hasieran azala leuna du baina emeki-emeki adinarekin zimurtzen zaio.

Hostoak handiak eta dirdiratsuak ditu. Lantzeolatuak direla erraten da, lantzaren puntaren antzekoak direlako. Hostoaren ertzak oxkatuak dira. Azpialdean, zainak biziki agerian dira.

Begiak oboideak (arroltzearen forma) eta gorri-ilunak ditu ; haien azpian aitzineko hosto baten aztarna bada beti.

Gaztainondoaren fruitua garbots arantzadunaren barnean den gaztaina da. Jaten ahal da baina kasu, indigaztainondoarena, aldiz, ez da jangarria. Gaztainak larrazkenean biltzen dira. Euskal Herriko klima euritsua eta eztia ongi doakio gaztainondoari.

Lizarra


Lizarra adar urriko zuhaitz lerdena da. Enborra zuzena du eta abardura arina.


Lizarrak hosto konposatuak ditu. Hosto konposatuaren linboa bizpahiru foliolotan egina da, girtain edo peziolo luze baten bi aldetatik emanak direlarik. Hosto konposatua begi bakar batetik sortzen da. Folioloen ertzak oxkatuak dira.

Lizarraren begiak handiak eta beltzak dira. Balusez jantzirik bezala eta hiruki formakoak dira. Beste batzuekin ez daitezke nahas.

Lizarraren fruitua idorra, talotua eta hegal luze baten barnean gerizatua da. Hegalak golkoka bildurik, eta idorturik ere, adar puntetan daude.

Lizarrak anitz argi eta hezetasun behar du. Udaberriko hormek lotsatzen dute baina negukoan beldurrik ez du. Haren egurra zalua eta zaila izanik, tresna giderren egiteko baliatzen da bai eta altzarigintzan ere.





Izeia

Izeiaren adarrak enborretik eskuin-ekker hedatzen dira. Enborra zuzena du eta 50 m-raino hel daiteke. Punta adinarekin makurtzen zaio. Izeiaren azala hauskara eta leuna da. Denborarekin azal hori zartatzen da.

Izeiaren orratzek ez dute ziztatzen ; talotuak dira eta azpialdean bi marra zurixka badituzte. Orratzak luzetasun desberdinekoak dira eta adaxkaren bi aldetan emanak, badute orrazearen itxura.

Izeiaren fruituak diren konoak edo pinaburuak nekez dira ikusten adar gorenetan direlako. Udazkenean, pinaburuaren ezkatak banan-banan deslotzen dira eta kandela baten gisa biluzirik, ziri bat baizik ez da ageri.

Izeia euriari, lainoari eta hotzari aise jartzen da. Elurak ere ez du lotsatzen. Mendian aurki daiteke pagoarekin nahasirik : oihan pagadi-izeidunak dira orduan.

Itsas-pinua


Itsas-pinuaren adarrek koroa bat osatzen dute enborraren inguruan. Enborra arras luzea da eta 30 m-ra hel daiteke. Azala loditzen da adinarekin. Ildaxka handiz betetzen da plaka handi batzuk utziz artean; plakak aise deslotzen dira enborretik.

Orratzak luzeak dira eta binaka lotuak poltsa tipi baten barnean, guzia adaxkari lotua.


Haziak ezkatat eginikako pinaburuetan dira.

Itsas-pinuak ezkata punta zorrotzez osaturiko pinaburu larriak ditu. Pinu guztiei gertatzen zaien bezala, pinaburuaren ezkatak zabaltzen dira beroaren eta hezeduraren arabera eta haziak orduan erortzen.

Itsas-pinuari eguzkia gustatzen zaio. Horma handiek aldiz lotsatzen dute. Horregatik da Europa ekialdean aurkitzen. Hezetasuna eta aro eztea bilatzen dituela, itsas ertzean kausitzen da. Landetako oihan handia itsas-pinudia da. Zuhaitz honek egurra ematen du, bai eta erretxina.



© Eusko Jaurlaritza, Francisco Garin



Ahuntz-sahatsa

Ahuntz-sahatsa 10 m petik gelditzen den zuhaitz tipia da. Enborra laburra eta ardura oinetik adarkatua du. Zuhaitzaren punta adar anitzez osatua da, adar bakoitza adaxka malguz bururatua.

Ahuntz-sahatsaren hostoaren punta bazterrera bihurtua da, kolorez berde iluna eta gainaldea leuna. Zainak ongi agertzen ditu, hostoa gizona izanik ere.

Sahatsa zuhaitz arra edo zuhaitz emea izaten da. Komunzi, zuhaitzetan ez da horrela gertatzen : lore arrak eta lore emeak zuhaitz berean daude. Loreak *gerbak* deitzen dira. Primadera hasieran, erleak lehenbizikorik sahatsaren loretan dabilta.

Ahuntz-sahatsa ez da zahartzen (40-50 urte). Hezetasuna eta freskotasuna beharrezkoak ditu. Beraz, aintzira eta erreka bazterretan kausituko dugu. Sahatsak ez du zur arraroa ematen. Halarik ere, haren adar finak zare eta saskien egiteko baliatzen dira, arras malguak baitira.

Haltza

Zuhaitz lerden eta arin honek adar barreiatuak eta enborra zuzena du, azala beltza, ezkata ilun eta errektangeluarrez estalia.


Haltzaren hostoak oboideak dira eta puntan oxkatuak. Hostoak itsaskorak edo likatsuak ditu gaztean.

Haltzaren begiak morantzak dira, oboideak eta likatsuak ; zentimetro erdi bateko adaxka baten puntan hazten dira.

Haltzaren fruituek buru tipi eta hegaldun iduri dute. Ur gainean ibiltzen dira, hain dira arinak. Fruitu hegaldun horiek pinaburu tipi baten antzeko konoaren barnean daude.


Haltza leku hezeetan aurki daiteke. Oinak urean izatea laket zaio ; ez da harritzekoa beraz ur bazterretan ikusten bada. Zuhaitza moztu eta, haren egurra kolorez aldatzen da eta laranja-kolore bilakatzen.

© Eusko Jaurlaritza,
Francisco Garin






Gure oihanetako zuhaitz nagusien sailkapen-taula



Euskal Herriko hariztiak



Harizti hektareak Euskal Herrian

Araba, Gipuzkoa, Bizkaia	13 100 ha
Nafarroa	18 000 ha
Pirinio Atlantikoak	15 470 ha

Iturria : Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Inventaire Forestier National



Nondik datoz gure oihanetako haritzak ?

Duela 15 000 urte hasi ziren haritzak Europan azkarki hedatzen, hegoaldetik iparraldera, eta duela 7 000 urte amaitu.



© Beñat Errecalde

Haritza espeziearen eta bereziki haren baliabideen hobeki ezagutzeko, ikerketa agronomiakoaz arduratzen den INRA erakundeak eta Frantziako oihanzaingoa (ONF) esperimentazio urratsetan abiatu ziren : Europako eskualde guzietatik hartu 250 000 haritz Frantziako lau oihanetan landatu zituzten. Duela hamar urte bideratu xedea gaur egun amaitu da. Proiektu handi horren helburuak biga ziren : Lehenik arbolen ezaugarriak ongi bereiztea (landarearen garapena, lurrari eta klimari nola egokitzen zaizkien) bereziki landaredi artifizialen hobetzeko.

Bigarrenik, duela 15 000 urte, glaziazioen ondotik zuhaitz

mota honek lurrazalean hasi "konkistaren" bilakaeraren ulertzeko. Interes handiko galdeak, dudarik gabe, Frantziako oihanetatik % 30 hariztiak izanik.

Xede horren gauzatzeko, ikerlariak bizpahiru tona ezkur bildu zituzten bi haritz espezie nagusitan hautaturik : haritz kandugabea eta haritz kanduduna. Britainiako mintegi batean hazi eta 250 000 Moselle, Nièvre eta Cher departamenduetako lau oihan hautatueta birlandatu zituzten. Hostoei eta begiei esker, ikerlariak ADNa ikertu dute eta aztarna genetiko bat eman diote jatorri bakoitzari. Ondorioak urte guziz Parisen antolatzen den laborantza ferian aurkeztu zituzten iragan martxoan. "Oraingo haritzen aztarna genetikoari behatuz eta daukaten polen fosilduarekin erkatuz, badakigu orain nola eta zein bide hartu zuten haritzek Europaren kolonizatzeko glaziaziotik landa. Europa hiru iturburuetatik "kolonizatu" zuten : Espainia hegoaldetik, Italiatik eta Balkanetatik." zioen Antoine Kremer, INRA-ko ikerketa sailburuak.

Bestalde, ikerlariak ulertu dute nolaz ziren haritzak hain zalu hedatu (urtean 500 m-z) Europa guzian: "Informatika simulazioek erakustera eman digute kopuru arrunt ttipia izanik ere, ezkurrek kolonizazioa ernatzen dutela eta urtean 500 metroko abiadura erdiesten, distantzia handitan barreiatuak izanez geroz."

Ikerketa horiek ateak idekitzen dizkigute geroari buruz ezen berotze klimatikoa dela eta, haritz mediterraneoaren hedapenak iparraldera mekanismo berei jarraitzen diela iduri luke, hots duela 17 000 urte bezalatsu eta beraz ikerlariak ondorioak aurreikusten ahalko dituzte.

2001-06ko *Mieux voir* magazine aldizkaritik.

Euskal deiturak eta oihana

Euskal Herriko leku eta jende izenek maiz oihan eta zuhaitzen izenak gogorarazten dizkigute. Horri ohartaraztea joko polita eta interesgarria dukegu, bai eta zuhaitzen izenen gogoan atxikitze lagungarri ere, bide nabar. Horra hor berrogeita hamar bat deitura. Bistan da, zerrenda hau luza daiteke; berdin zuhaurek egizue...

Ortografia ikertu

Taulako deituren ortografia nahitara euskaldundu dugu. Administrazioak euskal deitura gehienak erdararen eraginez aldaturik Ameztoi, *Amestoy*, *Damestoy*, etab... gertatu da. Gisa bereko beste adibide anitz atzeman daitezke hurrekin.

Ariketa honek atzizki ezagun batzuen lantzeko parada baliosa eskaintzen digu :

adibidez, -toi/doi,

-ga, -buru, etab...

bai eta izen elkarketei ohartarazteko, adib. Harizmendi.

Deituren zerrenda luzatu

Taula honetan aurkitzen diren deiturak oso hedatuak dira Euskal Herrian baina ez dira oihanari eta zuhaitzei dagozkien deitura guziak hemen aurkitzen. Zerrenda luza eta aberats dezakezue, adibidez haurren edo haien etxe-izenen erranahia ikertuz.

Aginaga	Hariztoi	Sagardia
Ametzaga	Haztoi	Sagardoi
Amezket	Intxaurreaga	Sagardoito
Amezpil	Intxaurregi	Sarhi
Ameztoi	Intxaurrepe	Sarrionaindia
Basaburu	Intxaurreti	Urkia
Basagaitz	Leizarraga	Urkiola
Berho	Lertxundi	Urkizu
Berrueta	Lexardoi	Urkudoi
Elorriaga	Lizar	Urritza
Elorrieta	Lizardi	Urritzaga
Elortza	Lizarralde	Urrizburu
Ezkurra	Lizarrazu	
Ezpel	Madariaga	
Ezpeleta	Mihura	
Gereziaga	Oihenarte	
Gorostiaga	Oihanburu	
Haizpuru	Oiharzabal	
Harizmendi	Pagaburu	
Harizpe	Pagadoi	
Hariztegi	Pagola	

Oharrak :

basoa = oihana.

Euskalki batzuetan,

oihana = mendia edo gainaldea.